

BAZTANGO MINTZOA DELA ETA, OHAR BAT

Pello SALABURU

Euskal Herriko Unibertsitatea

1. Oarainik ere euskalkiak ez daude behar bezala deskribatuak, ezta, batzuetan bederen, ezinbestekoak diren datuak behar bezala bilduak. Gero eta garbiago ikusten dut hori hobekien ezagutzen dudan euskalkira hurbiltzen naizen aldi bakoitzean.

Badira, gainera, euskalkien inguruan aztertu beharko liratekeen bertze hainbertze gauza ere: konparazione, euskalki batek euskalkia mintzo den tokiko erdaran duen eragina. Hau gertatzen da erdaraz mintzo denak euskaraz ez badaki ere. Fenomeno hauek ez dira, nire ustez, behar bezala aztertu, eta komeniko litzateke aztertzea, telebista, irratia edo hizkuntzaren batasuna ezagutu ez duen jendeak gero eta urte gehiago baititu. Eta hizkuntza interesa handiago da hor, nik uste, batasunarekin eroso sentitzen direnen kasuan baino.

Oroitzen naiz ederki nire ama zenak, norbait, euskaraz ez zekien norbait erran nahi dut, haren zain egon eta berandu iristen baldin bazen, aldi bakoitzean galdetzen zion hura: “¿Estabais tardados?” (edo, “tardadas”, andreen kasuan). Beti galdetu izan diot niri zer arraio ote den “estar tardado” gaztelaniaz, baina harentzat arrunta zen: “berantetsiek zineten?”, galdetuko zion halako batean zain zegoen hura euskalduna baldin bazen.

Orain dela aste batzuk, Elizondora hurbildu nintzen batean, karrikan harrapatu nuen ezagun bat, eta harekin hizketan hasi. Ez daki euskaraz. Honetaz eta hartaz aritu ginen, eta halako batean galdetu zidan ea konpondua nuen berak ezagutzen zuen nire arazotxo bat. Baietz, erran nion, konpondua nuela, garaiz harrapatu nuela zer egin behar zen, eta beharrik egin nuela, gainera. Hori erran nion. Eta berari berehala atera zitzaion esaldia: “¡Ya puedes

decir, si!". Pentsa, ya puedes decir si, hori ez luke inor ere ulertuko. Pentsa dezagun solasean ari zarela batekin eta norbaiten eritasunez ari garela: "Oi, oi, beharrik tenorez gan nitzela medikure!". Horren erantzun arrunta da Baztanen: "Erten al duk, bai!". Beharrik egin duzu, eskerrak, hori da erran nahi duena. Horra, bada, nola gelditu den euskararen aztarna hori hango mintzoan arras sustraitua, hango zainetan sartua, erdararen eta euskararen. Nirekin solasean ari zen hark ez daki euskaraz (hau ere, artista haren kasuan bezala, aski harrigarria da, Baztangoa izatea eta euskaraz ez jakitea, baina tira!), kontua da hark ez zekiela euskaraz, baina elkarrizketan bat-batean atera zitzaioela "Ya puedes decir, si!". Holako kontuak, aski interesgarriak, aztertu gabe daude.

2. Euskalkien kontuan, esan bezala, nahi duenak badu non ibili. Nahiz batzuetan dialektologiak arazo teoriko serioak plazaratzen dituen. Euskalkiak, mintzoak, hizkerak... ez baitira unitate diskretuak. Haien mugak ez dira garbiak. Horregatik ibiltzen dituzte hizkuntzalariek isoglosak, errazago baita erratea: "Bai, hitz hau, edo forma hau, halako tokian, edo beste halako hartan, hola erraten da". Baina nola isoglosa guziak elkarren artean gurutzatzen diren, euskalkien azterketak, dialektologiak, hobeki erran, han eta hemen arazo teoriko serioak jartzen ditu mahai gainean. Azken batean euskalkiak eta mintzoak ikertzailearen eraiketa teorikoak dira. Horrek ez du deus ere erran nahi, zientzia guzietan egiten baitira eraiketa teorikoak, denborarekin batera aldatu egiten direnak, noiz eta bigarren eraiketa aitzinekoa baino hobea den. Badakigu ongi aski Oñatiko eta Baztango euskara ez direla berdinak. Hori badakigu. Horregatik erran daiteke bi euskalki (bi mintzo edo hizkera, nahi bada) direla¹. Baina, betiere, mintzoak unitate diskretuak ez direnez, beti ibiliko gara neketan kontu hauekin, eta beti izanen da errazago proposatzen den eredia kritikatzeari. Horretan, dialektologiak arazo hori du, hizkuntzalaritzaren bertze atal batzuen parean segurik.

Denbora luzea daramat, urteak, Baztango euskalkia aztertzen. Gai hori ibili nuen doktorego tesia egiteko Mitxelena zenaren eskutik, gero bi liburutan argitara eman nuena². Eta lehenagotik ere banituen lanak argitaratuak gai beraren inguruan. Gero, bertze material batzuk ere argitaratu izan ditut noizbehinka, Elizondoko doktrinak edo Erratzukoak, oharrak hiztegiaren

¹ Hemen ezinbestekoa da Koldo Zuazoren eta Euskal Herriko Unibertsitateko beste zenbait irakasleen lanak aipatzea, azken urte hauetan arlo hau anitz landu baita. Horiek hobeki erran dezakete nik hemen erran nahi dudana.

² *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia : fonetika eta fonologia. Arau Fonologikoak*, 1984, Leioa, Bizkaia, EHU: Argitalpen zerbitzua

Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia : fonetika eta fonologia. Hizkuntzaren soinu-egitura, 1984, Leioa, Bizkaia, EHU: Argitalpen zerbitzua

ganean, eta abar. Ez ditut hona ekarriko, ez baitut gogoko nork bere burua hola aipatzea. Azkeneko lana, bai, hogeitun urte pasatu ondoren egina. Azkeneko lana aipatu nahi dut, hor egiten baitut hango mintzoaren azterketa sakonagoa³. Lan horrek erakutsi zidan, bide batez, egina anitz dela ematen badu ere, zenbat den oraino egiteko.

3. Baina aipamen bat egin nahi nuke hemen, dena dela, aitzinat joan baino lehenago. Hemen Mariano Izeta aipatu nahi nuke. Marianok lan handiak egi zituen Baztanen euskararen alde. Euskaltzaletasuna handia zuen, eta euskararekin zerikusia izan zezakeen guziaren maitale zen. Euskal dantza eta euskara bi gauza desberdin dira, jakina, baina maiz egon dira aski lotuak, dantza maite zuenak euskara ere maite baitzuen. Mariano zen horietako bat. Euskaraz idazten zuen: egia erran, guti ziren euskaraz idazten zutenak Baztanen, eta Mariano zen horietako bat. Bera bere lanetik bizi zen, erlojuak saltzen, eta hausten zirenean konpontzen saiatzen. Baina meritu handia du, izugarria, erlojuak utzi eta nobelak eskribitzen hasteko, edo hiztegiak egiten hasteko. Berak utzi digu aski hiztegi ederra⁴, Baztango mintzoari dagokiona. Hiztegi hori bi aldiz aztertu dut. Orain dela hamar urte inguru, argitaratu zelarik, sarrera bat egin nion. Orain berriz ere esku artean hartu eta hitzez hitz behatu behar izan dut gainetik beheiritaraino, eta ezagutzen ez nituen sarrera guziak berriz ere galdetu dut nork ibiltzen ote dituen. Gehienetan harrapatu ditut lekukoak han-hemenka. Bakan batzuetan ez. Horren berri eman dut liburuan. Dena den, ez nuen utzi nahi Mariano Izetaren izena aipatu gabe hemen. Mariano baztandarra zen, ni bezala, eta Baigorriara behin baino gehiagotan joaten zen, ni ere han bizi nintzelarik joaten nintzen gisan.

Eta Jean Haritschelhar izan zen Baigorriko alkatea garai batean. Orduan ezagutu nuen nik. Beraz, uste dut, omenaldi hau dela eta, hau guztia harira heldu dela. Horregatik aipatu nahi ditut bereziki bizenak: Izeta eta Haritschelhar. Haritschelhar Euskaltzaindiko buru izan zen garai haietan Akademiak indar handiarekin egin zuen aitzina, eta gizartean toki handiagoa egin zitzaion. Gogotik hartzen dut parte omenaldi honetan, horregatik. Itzul gaitezen, hortaz, euskalkietara.

4. Euskalkiak aztertzen direnean, sintaxi kontuak bigarren mailan gelditzen dira arruntean. Ez dira gelditzen bigarren mailan garrantzirik ez dutelako, ez. Gertatzen dena beste zerbait da: sintaxi kontuetan ez dagoela holako goiti-beheitirik hizkeren artean. Edo, zernahi gisaz, goiti-beheitirik

³ *Baztango mintzoa: Gramática eta Hiztegia*, 2005, Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia

⁴ Mariano Izeta, 1996, *Baztango hiztegia*, Nafarroako Gobernua

baldin bada ere, tipiagoak direla, hiztegi, fonetika edo morfologia mailakoak baino. Horregatik ez da horrenbertze aipatzen sintaxia.

Alta, sintaxian ere izaten dira ñabardurak eta desberdintasunak. Batzuetan, esamoldeak berdinak ez baitira (“bazkaltzera joan gara / joan gara bazkaltzen”; “utzi diogu egiten / utzi diogu egitera(t)”), eta abar, eta bertze batzuetan, berriz, badirelako hizkera batean adierazpide batzuk pareko garbirik ez dutenak bertze hizkera jakin batean.

Baztangoa aztertu nuenean, holako hauek bildu nituen, esku artean izan nituen grabazioetan:

- (1) *ez dio man izein... ta akitzekin itzeli!*
- (2) *ala iten izein dute*
- (3) *zerbait in izein duzue,... bertzenaz eztzuten deitiko kuarteletik*
- (4) *jotzen izen bear zuten*
- (5) *[zerria halako egunetan] iltzen izan bear zen*
- (6) *zautzen izen bear zuen*
- (7) *agertzen izan bear zuen*
- (8) *Antxitonian pillotan aitzen izen bear zuen xarmanki*
- (9) *azukre pixket maten izen behartzioten nontzinuen mine*
- (10) *deus ere ez du jaten izen bear*
- (11) *orrek berezi izen bear zuen.*

Adibide horiek aipatzen ditut lanean, baina adin batetik goiti ehunka gehiago aditzen ahal dira. Arras arruntak dira Baztanen (edo, ziren, gutienez). Horretara jarria ez denarendako, pixka bat bihurriak gertatzen ahal dira. Idazkera estandarrean paratuko ditut hemen segidan:

- (1') *ez dio eman izanen... eta akitzearekin itzali!*
- (2') *hala egiten izanen dute*
- (3') *zerbait egin izanen duzue.... bertzenaz ez zuten deituko kuarteletik*
- (4') *jotzen izan behar zuten*
- (5') *[zerria halako egunetan] hiltzen izan behar zen*
- (6') *ezagutzen izan behar zuen*
- (7') *agertzen izan behar zuen*
- (8') *Antxitonean pilotan aritzen izan behar zuen xarmanki*
- (9') *azukre pixka bat ematen izan behar zioten, non zenuen mina*
- (10') *deus ere ez du jaten izan behar*
- (11') *horrek berezi izan behar zuen.*

5. Esaldi horietan guzietan bada gauza bat baino gehiago ohartzeko modukoa, baina orain sintaxi kontu batzuetara mugatuko gara. Kontura gaitzen hor badirela bi esaldi multzo: batzuetan “behar ukan” ageri da, bertzeetan ez. Bertze horietan “izan” aditza, etorkizun markekin (“izanen”), agertzen da. Nola interpretatzen ditugu esaldi hauek?

Har dezagun lehenbizikoa. Hau nire aita zenari bildu nion etxean. Lurreko sua piztua utzi genuen eta herrira joan. Handik itzuli ginelarik sua itzalia zegoen, errekoa eman behar zionak ez baitzion deusik ere eman. Eta orduan erran zuen nire aita zenak hori. Bistan da erranahia: “Segur aski ere, ez dio eman [errekirik], eta akitu delarik itzali da”.

Hor aipatzekoa da “akitzeekin” forma hori ere, denbora markatzeko. Laphitz arizkundarra zen, sortzez, gero kanpora joan baldin bazen ere. Laphitzek horiek, aditz izenak denbora balioarekin, aunitz ibiltzen ditu. Baina orain ez gara horretaz ari. Orain segurtasun ez hori adierazteko modu honen berri eman nahi dugu: partizipioari “izan” aditza etorkizun markarekin gehitu, eta hola sortzen da “hain segur ere, segur aski ere” esan nahi duen zerbait:

- (12) *torri izein* (etorri izanen = segur aski ere, etorri)
- (13) *kusi izein* (ikusi izanen = segur aski ere, ikusi)
- (14) *artu izein* (hartu izanen = segur aski ere, hartu)

Eta esaldiak:

- (12') *maritxu ere torri izein de!* (= Maritxu ere etorri da, segur aski)
- (13') *Mattin kusi izein duze!* (= Mattin ikusi duzue, segur aski)
- (14') *sagarrak ere artu izein tuzte!* (= segur aski ere, sagarrak ere hartu dituzte)

Ez dira bakarrik orainaldian erabiltzen:

- (15) *Joakin ere gan izein zen!* (=Joakin ere joan zen, segur aski)
- (16) *zerrie il izein zuten garai hartan!* (= segur aski ere, txerria hila zuten garai hartan)
- (17) *lasterka ibili izein ziren!* (= segur aski ere, lasterka ibili ziren)

Ohart gaitezten esaldi hauek bertze euskalki batzuetan hola ere eman daitezkeela, etorkizunaren marka zuzenean aditz nagusian paratuz:

- (15') *Joakin ere joango zen!*
- (16') *txerria hilko zuten garai hartan!*
- (17') *lasterka ibiliko ziren!*

Batzuetan, azkeneko kasu hauetan, “ezta?” edo holako zerbait gaineratzen da. Eta Baztanen aski arrunta da *doike* gaineratzea. *Doike* horren jatorria “dudarik gabe” da, baina erranahiaz anbigua da, bi adiera baititu, itxuraz elkarren kontrakoak direnak: “dudarik gabe” eta “segur aski ere”. Esaldi hauetan bigarren adiera du:

- (18) *Maritxu ere torri izein de doike!*
- (19) *Mattin kusi izein duze doike!*
- (20) *sagarrak ere artu izein tuzte doike!*

Ez dut itzuli hau inon ere bildu Baztandik kanpo, egia errateko. Han-hemenka egon naiz behaka, belarriak tente, baina ez dut inon ere ikusi. *Herria* aldizkariko ehunka (edo milaka) adibide ikusi ditut, baina errestorik ere ez honetaz. Hala ere, Baztango herrietan egindako grabazioetan ageri da, Baztangoizan hasi eta Basaburu alderaino. Uste dut, zerenahi gisaz, erramolde hau galtzen ari den.

6. Nolanahi ere, esaldi horien guzien ahoskera ez da neutroa. Doinuak garrantzi handia du. Horregatik paratu diet beti azkenean harridura marka, argi ikusten ez badut ere harridura den, edo galdera, bien arteko zerbait, edo ez bata ez bertzea. Euskal kontuetan ez diogu prosodiari garrantzi handirik eman, eta hau da kasu horietako bat, non doinuak berak pisu handia duen. Esaldi guzietako azken silaba luzea da, eta lehenik gora eta gero beheiti egiten du doinuak: gogora ekartzen dit umeez galderak irakurtzen ikasten dutenean nola azentuatzen duten azken silaba goiti eramanez. Bada, hemen horren antzeko zerbait gertatzen da, baina azentua juxtu-juxtu alderantziz doa. Pentsatzen dut noizbait ohartuko garela hizkera doinua ere aztertu behar den zerbait dela.

7. Honaino etorkizunaren marka paratuz sortzen ditugun esaldiak. Bada, eman dudan zerrenda horretan, bertze sail bat ere. Sail honetako perpausetan “behar ukan” aditza ageri da. Har ditzagun goitiko esaldi batzuk:

- (21) *jotzen izan behar zuten*
- (22) *ezagutzen izan behar zuen*
- (23) *Antxitonean pilotan aritzen izan behar zuen xarmanki*
- (24) *azukre pixka bat ematen izan behar zioten, non zenuen mina*
- (25) *deus ere ez du jaten izan behar.*

Zer erran nahi du perifrasi horrek? Holako esaldiek zalantza izpia ageri dute, orain arte ikusi dugun bezala. Baina badute esaldi hauek bertze erranahi bat ere. Har dezagun lehenbizikoa (eredu estandarrean emanen ditut):

- (21') *jotzen izan behar zuten*

Baztandar batek hori erraten duelarik, eta aski maiz erraten du, holakoak aise ibiltzen baitira hango mintzoan, hau da erran nahi duena:

- (26) *iduri du jotzen zutela...; diotenez, jotzen zuten*

Eta gauza berbera gertatzen da gainerakoekin ere, dela iraganeko formekin nola orainaldikoekin (segidan, erranahiak biltzen ditut):

- (22') = nonbait, ezagutzen omen zuten, itxuraz (baina ez naiz seguru)
- (23') = nonbait, diotenez, pilotan aritzen omen zen Antxitonean (baina ez naiz seguru)

(24^o) = itxura denez, azukrea ematen omen zioten, diotenez (baina ez naiz seguru)

(25^o) = ez omen du deus ere jaten (baina ez naiz seguru).

Ikusten denez, hau da segida: aditz izena inesiboan (-tzen) + *izan* + *behar* + laguntzailea. Hau ere, erramolde hau, ez dut inon ere ikusi Baztandik kanpo, baina baztandarren artean aski arrunta da, edo arrunta da adin batetik aitzinat bederen. Solasean aunitz ibiltzen da forma hau. Denbora ere markatzen ahal da, adibideetan ikusi den gisa:

(27) *pilotan xarmanki aitzen izen bear du!*

(28) *pilotan xarmanki aitzen izen bear zuen!*

8. Bada hemen bertze gauza bat ere aipatzekoa. Jakina denez, ekialdean (eta Baztan ere kontu hauetan ekialdekoa da aunitzetan) *behar ukan* (iragankorra) eta *behar izan* (iragangaitza) ibiltzen dira, biak:

(29) *goiz joan behar dugu*

(30) *goiz joan behar gara.*

Hemen azaltzen ari garen adibide hauetan, ordea, beti *ukan* da ibiltzen dena (holako adibideak bakarrik bildu ditut, bederen):

(31) *egunero gaten bear izen zuen / *zen*

(32) *beti amarretako tortzen bear izen zuen / *zen.*

Jakina, Baztanen “pilotan ari da” baldin badiogu ere, (27) eta (28) adibideetan *pilotan aritzen izan behar zuen* da ageri dena, eta ez *pilotan aritzen izan behar zen*. Horrek erakusten du zenbaterainokoa den *behar* eta laguntzailearen arteko lotura.

Zer desberdintasun dago, erranahiaz, bi esaldi hauen artean:

(33) *egunero gaten bear izeten zuen*

(34) *egunero gaten bear izen zuen.*

Nire ustez, egia bada ere azkenean norberaren gogoa nahasi egiten dela holako ñabardurekin hasten garelarik, lehenbizikoa adierazpen perpaus arrunta da: “bazuen beharra egunero joateko”. Bigarreanean, ordea, erran bezala, gauzak desberdinak dira: hori erraten duenak uste du egunero joaten zela nor-bait... Baina ustea da, ez bertzerik, omenka ari baita.

9. Bi erramolde horien berri eman nahi izan dut. Batasuna beharrezkoa du hizkuntzak, bertzenaz aise lehenago hilen da, hor ez dut zalantzarik. Baina batasuna hornitzen eta aberasten ere jakin behar dugu. Horretarako, aldaera estilistikoak funtsezkoak dira, eta aldaera estilistikoak biltzeko, besteak beste, euskalkietara ere jo behar da, han aberastasun ikaragarria baita. Lekuko, hemen eman ditudan hauek. Holakoekin beztitu behar genuke euskara, baina

horretarako erne ibili behar ditugu gure belarriak, eta herrietako karriketan aditzen ahal denaz ohartu.

BIBLIOGRAFIA

IZETA, Mariano (1996) *Baztango hiztegia*, Nafarroako Gobernua

SALABURU, Pello (1984) *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia. Arau Fonologikoak*, Leioa, Bizkaia, Euskal Herriko Unibertsitatea: Servicio Editorial, Universidad del País Vasco

— (1984) *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia. Hizkuntzaren soinu-egitura*, Leioa, Bizkaia, Euskal Herriko Unibertsitatea : Servicio Editorial, Universidad del País Vasco

— (2005) *Baztango mintzoa: Gramatika eta Hiztegia*, 2005, Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia